

nikus
ker.

GAZTEAK ETA
TELEBISTA

44. TXOSTENA • 2023KO MAIATZA



AURKIBIDEA

1. ZER DA IKUSIKER	2
2. OHAR METODOLOGIKOAK.....	3
3. EMAITZAK	4
3.1 TELEBISTARI BURUZKO GALDERAK.....	4
4. LABURREAN.....	11

Nola aipatu: *Ikusiker (2023): Gazteak eta Telebista. UPV/EHU. www.ikusiker.eus*

Egileak: Edorta Arana, Bea Narbaiza, Garazi Sanchez, Itziar Zorita, Blanca

Miguellez eta Maialen Goirizelaia.

1. IKUSIKER

Euskal Herriko gazteek dauzkaten ikus-entzunezkoen kontsumoak eta Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) erabilerak aztertzen ditu IKUSIKER ikerketak (Applika+ izeneko proiektua: US22/23).

Egitasmo hau, 2028-2019 ikasturtetik aurrera UPV/EHUko NOR taldeak, EITBk, Kulturaren Euskal Behatokiak, Tabakalerak eta Euskararen Erakunde Publikoak burutzen dute, tokian tokiko ikasketa-zentroekin elkarlanean.

Ikerketa gauzatzeko, Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateko ikasleez osatutako bi panel daude martxan eta aldiro-aldiro inkestak luzatzen zaizkie, 12-23 urte bitarteko gazte hauek dituzten portaerak ezagutzeko.



UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea

Sarriena auzoa z/g, 48940 Leioa (Bizkaia)

+34 747 414 355

ikusiker@ehu.eus

2. OHAR METODOLOGIKOAK

Esku artean daukazu Informazioari buruzko txosten hau burutzeko, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) bi mila ikasletik gorako panela osatu da. Unibertsitari hauek modu iraunkorren eta maiztasun handiz erantzuten dituzte luzatzen zaizkien online galdera-sortak (www.encuestafacil.com), beti ere ikus-entzunezkoen kontsumoei eta IKTen erabilerei buruzkoak. Landa-lana eta datuen kudeaketa egiteko Aztiker Soziologia Ikerlanean laguntza jaso dugu.

Txosten honetan aurkituko daitezke 2023ko maiatzaren 8tik 17ra bitartean, unibertsitate mailan informazioari buruz eginiko inkestaren emaitzak. Guztira, 1.451 ikasleen erantzun baliagarri jaso dira.

Dokumentu honek, gazteek informazioaren alorrean telebistaren zein erabilera duten aztertzen du.

3. EMAITZAK


3.1 TELEBISTARI BURUZKO GALDERAK

Gazteek telebistaren zein erabilera egiten duten eta zein motatako kontsumoak egiten dituzten aztertu da galdetegi honetan. Lehenengo eta behin, telebista zein maiztasunarekin ikusten duten jakin nahi izan da. Astean 3-5 aldiz eta astean behin aipatzen dutenak dira gehiengoa, % 24,3ko datuak biak ala biak. Eguneroko kontsumoa % 16k aitortu du, aldiz, % 14,5ek esan du ez duela telebista inoiz ikusten.

1. Irudia – Ze maiztasunarekin ikusten duzu telebista?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Inoiz ez	210	14,5
Astean behin	353	24,3
Astean birritan	303	20,9
Astean 3-5 aldiz	353	24,3
Egunero	232	16,0
Guztira	1.451	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Ondoren, telebista pizten dutenean zenbat denbora eskaintzen dioten galdetu da. Gehiengoa (% 30,6), 20-39 minutu artean mugitzen da. Ordubete eta ordu eta erdi artean panelkideen % 15,6 kokatzen da, eta hortik gorako maiztasunetan datua txikiago da. Orohar, ordubete azpiko kontsumoak dira ohikoenak gazte hauen artean.

2. Irudia – Zenbat denbora egoten zara telebista ikusten?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
20 minutu baino gutxiago	328	27,5
20-39 minutu artean	364	30,6
40-59 minutu artean	179	15,0
Ordubete - ordu eta erdi artean	186	15,6
Ordu eta erdi - bi ordu artean	63	5,3
Bi ordu baino gehiago	71	6,0
Guztira	1.191	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Panelisten kanal gustokoena zein den galdetu da ondoren. Alde handiarekin, ETB2 nagusitzen da, % 21,6k aukertu du. Sei puntuko aldearekin atzetik jarraitzen dio TELE5 k eta pixkat atzerago FDF kanalak % 11,4ko portzentajearekin.

3. Irudia – Zein telebista kanal duzu gustukoen?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
LA1	104	8,5
TELE5	183	15,0
ANTENA3	122	10,0
ETB1	116	9,5
ETB2	264	21,6
FDF	139	11,4
CUATRO	46	3,8
LASEXTA	46	3,8
#0	22	1,8
DIVINITY	26	2,1
ETB3	7	0,6
LA2	9	0,7
Beste bat	139	11,4
Guztira	1.223	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Baina, zein eduki mota aukeratzten dute panelistek telebistan ikusteko? % 40,6k entretenimendua lehenesten du, % 21,7k fikzioa, eta % 12 inguruan mugitzen dira albisteak eta kirola.

4. Irudia – Zein eduki da telebistan ikustea gehien gustatzen zaizuna?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Entretanimendua	498	40,6
Fikziozkoak	267	21,7
Albistegiak	156	12,7
Kirolak	147	12,0
Aktualitateko erreportajeak ala dokumentalak	85	6,9
Dokumentalak orokorrean	31	2,5
Musika saioak	25	2,0
Bestelakoak	19	1,5
Guztira	1.228	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Telebista zein hizkuntzatan kontsumitzen duten aztertu da ondoren. Taulak erakusten du, ehuneko handi batek (% 90,5) gaztelaniaz ikusten duela telebista. Soilik % 6,9k euskara aukeratzen du.

5. Irudia – Zein izaten da telebistan ikusten dituzun programetako hizkuntza nagusia?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Gaztelania	1.114	90,5
Euskara	85	6,9
Ingelesa	30	2,4
Beste bat	2	0,2
Guztira	1.231	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Telebista euskaraz ikusten dutenen datua txikia izanik, datu zehatzetara hurbildu nahi izan dugu eta beraz, berauek kontsumitzeko maiztasunagatik galdetu da. % 41,5ek ez ditu inoiz euskarazko edukiak ikusten. % 20,1ek hilean behin baino ez, eta % 18,6k astean behin. Telebista egunero euskaraz kontsumitzeko ohitura dutenen datua % 3,4 da

6. Irudia – Zenbatetan ikusten dituzu telebista edukiak euskaraz?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Inoiz ez	511	41,5
Hilabetean behin	248	20,1
Astean behin	229	18,6
Astean birritan	120	9,7
Astean 3-5 aldiz	81	6,6
Egunero	42	3,4
Guztira	1.231	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Ondoren, telebista lokalen inpaktua zein den aztertu nahi izan da. % 73,3k ez du bere gertuko telebistarik inoiz kontsumitzen, % 14,8k hilean behin baino ez, eta hortik gorako maiztasunetan oso datu txikiak aurkitzen ditugu.

7. Irudia – Herri edo eskualdeko telebista lokalen bat ikusten duzu?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
Inoiz ez	901	73,3
Hilabetean behin	182	14,8
Astean behin	86	7,0
Astean birritan	44	3,6
Astean 3-5 aldiz	10	0,8
Egunero	7	0,6
Guztira	1.230	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Panelisten % 7k aipatu du telebista lokalak astean behin kontsumitzen dituela, eta % 3,6k astean bitan. Ikasle hauen artean galdetu da telebista lokaletako zein eduki motak sortzen dien interesa. % 9,5ek entretenimendua aipatu du, eta % 9,1ek albisteak. Hauen atzetik aktualitateko erreportajeak ala dokumentalak aipatzen dira gehien, % 7,1eko datuarekin.

8. Irudia – Telebista lokalen bat ikusten baduzu, zein da kanal horretan gehien ikusten duzun edukia?

	Maiztasuna	Ehunekoak (%)
Ez dut telebista lokalik ikusten	713	63,7
Aktualitateko erreportajeak ala dokumentalak	80	7,1
Fikziozkoak	30	2,7
Musika saioak	24	2,1
Entrenimendua	106	9,5
Albistegiak	102	9,1
Dokumentalak orokorrean	14	1,3
Kirolak	41	3,7
Bestelakoak	10	0,9
Guztira	1.120	100,0

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.




Amaitzeko, telebistari puntuazio bat emateko eskatu zaie panelistei. % 21,8k, 7ko nota jarri dio, eta % 20,3k, 6koa. Batezbesteko puntuazioa 5,7 izan da.

9. Irudia – Orokorrean, zein nota jarriko zenioke telebistari?

	Maiztasuna	Ehunekoa (%)
10	14	1,2
9	31	2,6
8	145	12,3
7	256	21,8
6	239	20,3
5	258	21,9
4	78	6,6
3	71	6,0
2	47	4,0
1	30	2,6
0	7	0,6
Guztira	1.176	100,0
Batezbestekoa (0-10)	5,7	

Iturria: Ikusiker, 2023, maiatza.



4. LABURREAN

- Panelkideen % 24,3k, asteen 3-5 aldiz ikusten du telebista, eta pizten duen aldiro, 20-39 minutu artean eskaintzen dizkio.

- Alde handiarekin, ETB2 da kate aukeratuena ikasleen artean (% 21,6). Bigarren kanal aipatuena TELE5 da % 15eko portzentajearekin.

- % 40,6k entretenimenduzko edukiak ikusteko pizten du telebista.

- % 90,5ek gaztelaniaz kontsumitzen du telebista. Soilik % 6,9k euskara aukeratzen du.

- % 73,3k ez du herriko, hiriko edo auzoko informazioa jasotzeko telebista lokala ikusteko ohiturarik.

- Panelistek batezbeste, 5,7ko puntuazioa ematen diote telebistari.